

ZARATEK ETA DARDAREK ERAGINDAKO KUTSADURA AKUSTIKOAREN AURREAN UDALAK IZAN BEHAR DUEN JARDUKETA ARAUPETZEN DUEN ORDENANTZA.

Herritarrek zaraten eta dardaren aldetik dituzten eragozpenei erantzuna emateko Udalak izan behar duen jarduna eguneratzeko arau bat egin beharra dago, eta halaxe gelditu da agerian eguneroko errealitatean egun indarrean dagoen araudiak dituen hutsuneak ikusita.

Gaur egun, gizartea gero eta jabetuago dago eta gero eta gehiago eskatzen die erakundeei hiriko ingurumenaz gozatzeko eskubidea berma dezan, herritarren lasaitasuna, atsedena eta ongizatea ahalbidetzeari begira.

Agenda 21 dokumentua Lurraren Goi-bileran sinatu zen 1992. urtean, Rio de Janeiron (Brasil), eta orduan ere, giroko kutsadurak eta ingurumen-arriskuek osasunean dituen arriskuak murrizteko arauen barruan, irizpideak ezarri beharra aipatzen zen, baimendutako gehieneko soinu mailak finkatzeko eta soinu maila ebaluatzeko eta kontrolatzeko neurriak ezartzeko.

Hori dela-eta, beharrezkoa da kutsadura akustikoak sortutako arazoak arautzea, zertarako-eta, aldi batetik, soinu giroa kalte dezaketen jarduerak eta instalazioek bete beharreko baldintzak finkatzeko, eta bestetik, sortzen diren eragozpenak desagerrarazteko; izan ere, kasu askotan, gaitz psikologikoak, familiakoak eta lanekoak eragiten dizkiete horiek pairatzen dituztenei.

Azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak onetsitako jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen arautegiaren arabera, sortzen dituzten zaratak eta dardarak direla-eta eragozpena dakartenak dira jarduera gogaikarriak. Arautegi hori, ordea, nahikoa zaharkituta gelditu da hura onetsi zenetik igaro den denboragatik.

Halaber, ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak, egoitzako hiri lurzoruan ezarri beharreko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatzeko zuzenketa neurrien artean, horrelako jarduerak ekar ditzaketen zarata edota dardarengatik eragozpenak murrizteko zenbait neurri finkatu ditu.

Berrikiago, ingurumen-baliabideen babesa lantzen du Euskal Herriko Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren bigarren tituluak, eta horren barnean, zarataren eta dardaren kontrako borroka dago. Hala, ordenantzak emateko eta lurralde plangintzako tresnetan kalitate helburuak, mugako balioak eta muga arriskutsuak ezartzeko eskumena eratziki die Autonomia Erkidegoko udalerriei. Gainera, lurrak erabiltzeko murrizketa neurriak ere ezar ditzake kutsadura maila handiak antzeman diren tokietan, baita soinu-iturri gehiago mugatzea ere.

Era berean, Legearen hirugarren tituluan, sailkaturiko jarduerak jartzeko araubidea jorratzen da, eta pertsonentzat edo horren ondasunentzat eragozpenak ekar ditzaketen edo arriskua sor dezaketen jardueri lizentzia emateko prozedura eguneratu du.

Hortaz, ingurumenari buruzko arauak udalei eratzikiriko erantzukizuna da zaratak eta dardarak kontrolatzea, beharrezko tresnak eta beren gain hartu beharrekoak jarrita, bai arauen bidez, bai giza baliabide eta baliabide materialen bidez, giza osasunerako eta oro har ingurumenerako ondorio kaltegarriak ekiditeko, prebenitzeko edota murriztu ahal izateko.

Arauk egiteko ahalmena erabiltzea, jakina, udal autonomiaren adierazpena da, eta tokiko korporazioei eratzikitzen zaizkien ahalmen orokorren garapena eta egokitzapena dakarte, halako moldez non harmoniazko erregulazioa izango baita udal ordenantza eta, aldi berean, maila handiagoko araudiarekin bat etorriko baita.

Berrikuntzarik garrantzitsuenei dagokienez, egun baimenduta dauden soinu eta dardaren gehieneko mailen aldaketa aipatu behar da; inmisio maila berriak ezarri dira udal araudian, hain zuzen ere udalaren zerbitzu teknikoek horrelako kutsaduraren kontrako borrokan duen esperientzian egokitzen jotzen direnak; legez kontra funtzionatzen duten jardueren eta instalazioen aurrean bizkor eta eraginkortasunez jardutea ahalbidetzen duten beharrezko bitarteko juridikoak eratzea; eta, azkenik, kontrol formulak ezartzea, kutsadura akustikoko balizko guneen berri izateko bitartekoak hain zuzen -eta, hala, zuzenketa neurri egokiak finkatzea-, eta gainera, nolabaiteko bermea izango dira -jardueren pertsona sustatzaileentzat ere bai- instalazioei erantzun egokia emateko arauaren xedeko ezaugarrietan.

Horrelako neurriak egin behar dira, udalak ahalmena baitu zuzenketa neurriak, egiaztatzeko, ikuskatzeko eta kalifikatzeko, «ondo ondoko traktu»tzat hartutako lizentzia mota bati aplikatua, non ikuskaritzak eraginkorra izan behar baitu, lizentziaren baldintzekiko izan litezkeen desbideraketak antzematen eta zuzentzen direla bermatzeko. Horien artean, zarataren igorpen eta inmisio mailak daude eta, hartara, kontrol iraunkorreko eta automatikoko aparatua jarri behar dira.

Zigor-araubideari dagokionez, arestian esandako 3/1998 Legean oinarrituriko araubide bat ezarri da, eta ingurumenaren araudiari buruzko bosgarren tituluak ingurumen-erantzukizuna eta zigor-araubidea araupetzen ditu konbinatuta eta elkarren mende.

Arau-hausteei buruzko araubideak arau-hausteen sailkapena egiten du, oso larrietatik arinetara, eta era berean, zehapenak finkatzen ditu, arau-hauste mota bakoitzaren berezko eskalekin.

Aipaturiko arauak dakartzaten xedapenen zuzenketak dira ordenantzan arau-hausteen eta zehapenen arloan eginiko aurreikuspenak, eta ez dute mugatzen horietan edo beste arauetan ezarritako zigor-araubidea.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. art. Xedea.

1. Ordenantza honen xedea da ingurumenaren kalitatea babestea eta hobetzea kanpoko eta barruko giroan eragindako zaraten eta dardaren ondoriozko kutsadura akustikoaren aurrean, eta helburu horretarako kontsideraturiko mugak eta zehaztapen teknikoak ezarri dira, baita udalaren jarduketaren arauak ere jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen arautegiari eta Euskal Herriko Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legeari loturiko jardueri dagokienez eta pertsonen osasunerako edo ongizaterako eragozpenak edo arriskuak ekar litzakeen edozein jarduera edo jokabide motari dagokionez.

2. art. Atmosferaren kutsadura.

1. Ordenantza honen ondorioetarako, atmosfera kutsatzen duen osagaia da zarata, eta hala irizten zaio, Atmosferako Giroaren Babesari buruzko abenduaren 22ko 38/1972 Legean eta Euskal Herriko Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legean aipatzen denaren arabera.

3. art. Aplikazio-eremua.

1. Ordenantza hau Berango udal-mugarte osoan aplikatu behar da.

2. Preskripzio horien mendean izango dira ingurumenaren egoera naturala aldarazten duten jarduera, instalazio eta jokabide guztiak zaraten edota dardaren igorpena dela-eta, pertsona erantzulea eta igorpena gertatzen den tokia edozein direla ere, toki publikoan edo pribatuan, irekian edo itxian.

3. Udalak, aldi batez eta gune jakin batzuetan, ordenantza hau betetzea salbuetsi dezake ondoko kasu hauetan:

—Herri eta gizarte onurako ekintzak, ekintza ofizialak, kulturakoak, jaiak, erlijio ekitaldiak, etab.

—Edozein eratako jai tradizionalak direla-eta eginiko ikuskizun publikoak eta jolas jarduerak; arau espezifikoak izango dituzte.

—Aldi baterako lanak hala nola eraikuntzako obrak, eraikinak konpontzea edo botatzea, talde elektrogenoak, etab., baita gauzez herri bidean egin beharrekoak ere.

—Alarmak, larrialdiak edo herri onurak dakartzaten egoera bereziak.

Salbuespen horiek beren beregi baimenduko ditu Udalak; izan ere, burutzapen-epea, ordutegia eta ingurumen-eragina txikitzeko egokitzat jotzen dituen gainerako baldintzak ezarriko ditu lizentzian.

4. Zaratak edota dardarak izan daitezkeen era guztietako industriak, jarduerak eta instalazioak kokatzeko eta hiri plangintza egiteko lanetan, horretarako egingo den eragin akustikoaren azterlan xehekatuan agerrarazi beharko da eragina. Hala, hartutako soluziobideek edota plangintzek bizi-kalitatearen eta ingurumenaren errespetuaren mailarik altuena emango dute.

5. Aplikatu beharreko indarreko araudian ezarritakoari kalterik egin gabe egingo da eragin akustikoari buruzko azterlana, hain zuzen ere zenbait planek eta proiektuk bete behar duten ingurumen-eraginaren ebaluazioari dagokionez (gehienbat hiri guneeetatik hurbil dauden industrialdeak, horri buruzko Europako Zuzentarauak proposaturiko mugak aplikatuz).

4. art. Udal eskumena.

1. Udalari dagokio ordenantza hau betetzen dela zaintzea, beharrezko zuzenketa neurriak hartzea eskatzea, mugak ezartzea, beharrezko ikuskapenak eskatzea eta, horiek bete ezik, zehapenak aplikatzea.

5. art. Jarduketan bateragarritasuna.

1. Administrazioaren beste erakunde batzuek beren eskumenen arloan egin ditzaketen jarduketei kalterik egin gabe ulertu behar da honako ordenantza honetan ezarritako araubidea.

6. art. Neurriak nahitaez hartu beharra.

1. Kutsadura akustikoko edozein guneren titularrek nahitaez hartu behar dituzte beharrezko neurriak maila aplikagarriak behatzeko, eskaeren edo banako nahitaezkotasunen beharrik izan gabe.

II. TITULUA

KOMUNITATEAREN ZARATA

7. art. Bideko jarduerak.

1. Herritarren bizikidetzarako eta besteak errespetatzeko eskatzen diren mugen barruan egongo dira herri bidean eta jendea dabilen inguruetan (plazetan, parkeetan, etab.) edo eraikinen barruetan igorritako soinu mailak.

2. Aurreko lerroaldean ezarritako preskripzioa bereziki gaueko loaldietako orduetan izandako zaratei dagokie -22:00etatik 8:00etara– hainbat inguruabar direla-eta, hala nola giza ahotsa edo pertsonen zuzeneko jarduera, etxeko animaliek eragindako zaratak, etxeko tresna elektrikoen funtzionamendua, musika aparatuak eta tresnak, klimatizazio edo aireztapen instalazioak.

Jaialdietan eta asteburuetan (ondorio horietarako, ostiralak, larunbatak eta jaiegun bezperak) 23:00etan hasiko da orduko ordutegia, eta jaiegunetan ez da amaituko 9:00ak arte.

8. art. Betebeharrak.

1. Aurreko artikuluan aipaturiko zaratei dagokienez, gaueko loaldian ez dira ondoko hauek egingo:

—Oihu edo txilio egitea.

—Auzokideentzat eragozpenak ekar ditzaketen etxeko lanak eta konponketak egitea.

—Propaganda, apeu, ohar, distrakzio eta abarrerako erabilitako edozein soinudun aparatu erabiltzea.

—Eta, oro har, auzokideen atsedena oztopa dezaketen zaratak edota dardarak transmititzea.

2. Etxeko animaliak dituztenek nahitaez hartu behar dituzte beharrezko neurriak animaliek auzokideen lasaitasuna galaraz ez dezaten.

Illo horretan, beren soinuekin auzokideentzako eragozpenak ekar ditzaketen animaliak ezin izango dira utzi patioetan, terrazetan, galerietan, balkoietan edo beste gune ireki batzuetan.

3. Herri bideetan eta jendea dabilen tokietan ezin erabil daitezke musika ekipoak edo tresnak, publizitate mezuak igortzea edo zaratak edota dardarak dakartzan beste edozein jarduera, beren beregi baimentzen denean izan ezik.

Herri bidean umeentzat jarritako joko elektrikoek Udalaren Ondare Sailaren baimena izan beharko dute, eta baimen horretako zehazturiko ordutegiaren barruko funtzionamendua izan beharko da, betiere auzokideentzako eragozpenik izan gabe.

9. art. Salaketak auzokideen artean.

1. Auzokideen arteko eragozpenei buruzko araudi juridikoa Jabetza Horizontalari buruzko Legean dago ezarrita. Salaketa badago tartean, eskatzaileek dituzten frogak eta neurketak izan ditzake Udalak.

10. art. Zama-lanak.

1. Soilik 7:00etatik 22:00etara egin ahal izango dira merkantzien zamalanak, kaxak batetik bestera eramatea edukiontzia, eraikuntzako materialak eta antzekoak egoitza aldeetako herri bidean, salbu eta Udalak beren beregiko baimena ematen ez badu. Udalak, era berean, egiazaturiko arrazoiak direla-eta, ordutegi murrizagoak ezar ditzake jarduera eta zonalde jakin batzuetan.

2. Merkantzien zamalanek iraun bitartean, zuzeneko eraginik ez izateko arreta berezia jarriko du pertsonalak, baita ibilbideak kargak mugitzean eragindako zaratarik ez izateko ere.

3. Administrazioak neurri zehatzak hartzeko eska dezake, horrelako eragiketen ondoriozko eragozpenak murrizteko, eta zehazkiago, nahitaezkoa izango da zarata ibilbidean leuntzeko gurpil pneumatikoak dituzten gurditxoak edo eskorgak erabiltzea.

4. Merkataritza erabilerako establezimenduek (1 eta 2. kategoriakoak izan ezik) barruko lokal bat izan beharko dute, eremu egokikoa, bertan egiteko merkantzien zamalanak. Isolamendu akustiko egokia izan beharko du lokalak, ordenantza honetan zehazturiko mugak ez gainditzeko.

11. art. Lanak herri bidean eta eraikuntzan.

1. Aldi baterako lanak ezin izango dira egin 22:00etatik 8:00etara eta jai egunetan ordu guztietan, hala nola eraikuntza lanak eta eraikinak konpontzeko edo botatzeko lanak, baita herri bidean egiten direnak ere, salbu eta Udalak beren beregiko baimena ematen badu.

2. Etxebizitzen edo lokalen barruko lanak 8:00etatik 20:00etara egin beharko dira eta, nolana ere, jai egunetan ezin izango dira egin zarata edota dardarak direla-eta herritarrentzako eragozpenak ekar baditzakete.

3. Zuzenketa neurri egokiak hartuko dira zarata edo dardarak direla-eta herritarrentzat izan daitezkeen eragozpenak gutxitzeko.

4. Herritarren lasaitasuna ahalik eta gutxien eragozteko beharrezko neurriak hartuko dira herri bideak garbitzean eta zaborrak biltzean. Horri dagokionez, kontratazioan aurkezten diren enpresek erabiltzen dituzten ibilgailuen soinu maila baloratuko du Udalak udal zerbitzu hori esleitzerakoan.

12. art. Alarmak.

1. Alarmek edo larrialdietarako seinaleek behar bezala homologatuta egon behar dute, eta ezin izango dira martxan jarri, justifikaturiko kausengatik izan ezik; hirugarrenei kalteak edo eragozpenak eragitea galaraziko da.

2. Kanpoko aparatuek, ohartarazle akustikoen edo optikoen kaxek, harremanetarako telefonoa izan beharko dute, baita mantentze-lanak egiten dituen enpresaren izena eta telefonoa ere. Telefono horren bidez, erabaki egokia hartuko da.

3. Alarma sistema baten funtzionamendu ezohikoak eragozpenak badakartza auzokideentzat eta sistemaren arduraduna agertzen ez bada, edo aurreko atalean ezarritakoa betetzen ez bada eta arduradunarekin harremanetan jartzerik ez badago, sistema desaktibatuko da, baina horrek ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik ekarriko. Eragiketa horren ondoriozko kostuak instalazioaren titularrari jasanaraziko zaizkio.

Alarma sistema baten funtzionamendua ezohikoa izango da martxan jartzen bada alarma justifikatzen duen kausarik izan ezean.

4. Zehapena ezartzeari kalterik gabe ulertuko da aurreko atalean ezarritako neurria, noiz-eta jabeari edo enpresa instalatzaileari edo hornitzaileari egotz dakizkiokeen ekintzen ondoriozko eragozpenak direnean sistemaren instalazio okerraren ondorioz edo egoera onean mantentzeko eragiketarik ezaren ondorioz.

13. art. *Salbuespenak.*

1. Ordenantza honetatik at daude desordena publikoen, istiluen, merkataritza edo jolas gunetako jendetzaren eta antzekoen ondoriozko eragozpenak.

III. TITULUA

IBILGAILUEN ZARATA

14. art. *Trafikoaren zarata arautzea.*

1. Motordun ibilgailu orok funtzionatzeko egoera onean egon behar du, zertarako-eta, dela zirkulazioan, dela geldirik dagoenean eginiko soinu mailak indarreko araudi aplikagarrian edo ondoko aldaketetan ezarritako muga ez gainditzeko.

15. art. *Eragin akustikoari buruzko azterlana.*

1. Trafiko bideak eraikitzeko edo egon daudenak aldatzeko proiektuetan, balizko eragin akustikoari buruzko azterlan bat egin beharko da alde zuzenetik, halako moldez non hartutako plangintzek edota soluziobideek bizi-kalitatearen eta ingurumenaren errespetuaren mailarik altuena emango baitute.

16. art. *Debekuak.*

1. Debekatuta dago ihes-hodi librea deritzona duten motordun ibilgailuekin eta zirkulazioarekin ibiltzea ez talden manuzko isilgailurik gabe, edo osorik edo egoera txarrean dauden edo egokiak ez diren isilgailuekin.

2. Debekatuta dago ibilgailuen martxak behartzea behar ez diren zaratak eraginda behar ez diren azelerazioak direla-eta.

3. Debekatuta dago klaxonak edo beste edozein aparatua akustiko erabiltzea hirigunean, salbu eta norbait harrapatzeko edo talka egiteko arriskua badago, edo larrialdi zerbitzuetan dabilzan lehentasunezko ibilgailu publikoak edo pribatuak direnean.

4. Debekatuta dago ibilgailuetan soinua erreproduzitzeko sistemak erabiltzea kanpoko giroko gehiegizko bolumenarekin, hirugarrenei ageriko eragozpena dakarkienean.

5. Debekatuta dago ibilgailuetako alarmen funtzionamendu anomaloa, alarmak itxuraz arrazoi barik jotzen hasten direnean eta zarata eragozpena denean auzokideentzat.

Edozelan ere, lehentasunezko ibilgailuetako gidariak bakarka erabiliko dute argi-seinalea seinale akustiko bereziak ez erabiltzeak gainerako pertsonentzako arriskurik ez dakarrenean.

Komenigarri irizten zaionean eta herritarren ingurumen-kalitatea zaintzeko asmoz, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera soinu maila altuak dauden ibilgailuen trafikoko zirkulazio eremuak edo bideak babestu ditzake Udalak, trafikoa ordutegian erregulatuz, abiadura edo ibilgailu mota desberdinen zirkulazioa murriztuz.

17. artikulua.- Trafikoaren zaintza.

1.- Berangoko Udaltzaingoari dagokio ordenantza honetan ezarritakoa betetzen dela zaintzeko eskumena, eta horretarako, ibilgailu zaratatsuak geldiaraziko ditu. Bestalde, motordun ibilgailuen eta ziklomotoreen jabe edota gidari guztiek nahitaez utzi behar dute neurgailuak erabiltzea eta helburua betetzeko beharrezko eragiketa guztiak egitea udaltzainek hala egitea eskatzen dutenean.

2.- Motordun ibilgailuek eta ziklomotoreek eragindako zarata maila kontrolatzeko, prebentzio kontrol orokorrak egin ahal izango dira, Udalak ezarritako programekin bat etorritik.

3.- Gidari edota ibilgailua duen orok nahitaez egin beharko ditu udaltzainek ordenantza hau betetzeko ezar ditzaketen probak.

4.- Kontroleko udaltzainen jarduketak eta, hala denean, ibilgailuarena, behar bezala agerraraziko da aktan edo jarduketaren unean gauzatu beharko den buletinean. Horren kopia bat gidariari emango zaio, eta egoki irizten diren ohar guztiak egingo dira.

Era berean, ondoren burutuko diren jarduketak ere behar bezala utziko dira jasota.

18. artikulua.- Ibilgailuen kontrola.

1.- Baldin eta, udaltzainen iritziz, ibilgailuak ordenantza honetan ezarritako soinu muga gainditzeko moduan badago, igorpena neurtuko da eta ibilgailuaren elementuak eta osagaiak indarreko legeriari egokitzen zaizkiola egiaztatuko da.

2.- Eginiko neurketak ordenantzan ezarritako mugak gainditzen baditu, hauexek egingo dira:

A) Baldin eta, neurketa eginda, soinu maila ibilgailuari dagokiona baino 6-9 dB(A) handiagoa bada, salaketa jarriko dute udaltzainek, eta baldintza bat jarriko da: antzemandako anomalia konpontzea. Kasu honetan, ibilgailuaren jabeak 15 egun baliodun izango ditu ikusitako hutsuneak konpontzeko edozein konponketa tailerretan.

Epe hori igarota, hutsunea konpondu dela egiaztatuko da konponketa egin duen tailerraren ziurtagiria edota faktura aurkeztuta. Hori egiaztatzeko, ibilgailua eraman beharko da Udaltzaingoaren bulegoetara, aztertu eta ikuska dezaten.

Deuseztatu egingo da salaketa eta artxibatu egingo da baldin eta titularrari kausa beragatik beste salaketa bat deuseztatu ez bazaio. Baldin eta epe horretan hutsunea konpondu dela egiaztatzen ez bada, jabea eginiko salaketarekin ados dagoela ulertuko da, eta zigor-espeditentea hasiko da. Espediente hori aintzat hartu gabe, 10 eguneko beste epe bat emango zaio ibilgailua konpon dezan, eta honetaz ohartaraziko zaio: errekerimendu berria bete ezik, arau-hauste larria egingo duela hura ez betetzeagatik, eta izapide gehiago barik, ibilgailua aurkitu, kendu eta udalaren biltegira eraman egingo da.

Jabeak ibilgailuaren akatsak konpontzeko modua izan dezan, udaltzainek zirkulatzeko baimen-ziurtagiri bat emango diote, 10 eguneko baliokoa, ibilgailua tailerrera eramateko, eta zirkulazio-baimena Udaltzaingoaren esku geldituko da eta itzuli egingo zaio ikusitako hutsunea egiaztatutakoan.

B) Baldin eta soinu maila ibilgailuari dagokiona baino 9-12 dB(A) handiago dela ikusten bada neurketan, salaketa jarriko da, eta horrek zigor-prozedura hastea ekarriko du. Kasu honetan, ibilgailuaren jabeak 15 egun baliodun izango ditu ikusitako hutsuneak konpontzeko edozein konponketa tailerretan. Epe hori igarota, hutsunea konpondu dela egiaztatuko da konponketa egin duen tailerraren ziurtagiria edota faktura aurkeztuta. Hori egiaztatzeko, ibilgailua eraman beharko da Udaltzaingoaren bulegoetara, aztertu eta ikuska dezaten. Epe horretan hutsuneak konpondu direla egiaztatu ezik, aurreko kasuan bezala jardungo da, hots, ibilgailua aurkitu eta udal biltegira eramango da eta zirkulazio-ziurtagiri bat emango zaio, soilik ibilgailua tailerrera eramateko akatsak konpondu dakizkion.

C) Ibilgailua geldiarazi, kendu eta eramango ahal izango da aurretik igorpen mailen aurretiazko neurketa egin barik baldin eta ibilgailua isilgailu barik badoa ("ihes-hodi librea" edo gasetarako ihes-hodi aldatua edo ez homologatua badu hura jarrita dagoen auto motarako eta antzeko ondorioak baditu). Halaber, hala gertatuko da gidariak uko egiten dionean zarata kontrolatzeko probak egiteari. Segurtasuna bermatzeko eta ibilgailua erabiltzeko prest ez dagoela bermatzeko, horretarako erabakiko den udal biltegian geldiaraziko da ibilgailua eta salaketa jarriko da. Ibilgailua herri bidetik kentzeko, garabiaren udal zerbitzua erabiliko da.

D) Ibilgailu edota ziklomotorearen titularrak ibilgailua kendu ahal izango du udal biltegitik ondoko baldintza hauek bete ondoren:

- oIbilgailuak kendu eta udal lokaletan egoteagatiko tasak ordaintzea.
- oAgiri bat izenpetzea, titularrak ibilgailua 10 eguneko epean konponduko duela hitzartzeko.
- oAtoi sistema edo karga sistema erabiliko da, edo ibilgailua herri bidean martxan jarri barik konponketa tailerrera eramatea ahalbidetzen duen beste edozein bitarteko, baldin eta soinu maila ibilgailuari dagokiona baino 12 dB(A) handiagoa bada, soilik osagaiak indarreko legeriari egokitzeko.
- oIbilgailua eramateko zirkulazioko baimen-ziurtagiri bat emango zaio, titularrak erabakitako tailerrera edo tailerretik udal biltegiara eramateko eta zirkulazio-baimena udaltzainen esku geldituko da. Udaltzaingoak itzuli egingo dio jabeari osagaiak arauari egokitzen zaizkiola baieztatutakoan (ibilgailuen konponketa tailerraren txostenaren edota fakturaren bidez eta ibilgailua Udaltzaingoaren bulegoetan aztertuz eta ikuskatuz) eta soinu-igorpenak ordenantza honetan ezarritako mugak gainditzen ez dituela egiaztatutakoan.

Ordenantza honetako eranskinen xedatu denarekin bat etorritik egingo da soinu-igorpenak neurtzeko prozedura.

Ibilgailua geldirik egoteko metodoarekin aztertu eta ikuskatuko da ibilgailua, ordenantza honen eranskinak dakarren metodoarekin hain zuzen.

Abandonaturiko ibilgailuen araubidea aplikatuko zaie geldiarazitako ibilgailua 2 hilabeteko epean kendu ezik, autoa geldiarazten den egunetik zenbatzen hasita.

19. artikulua.- Soinu maila onargarriak.

1.- Zirkulazioan diren ibilgailuek, oro har, hauexek zehazturikoa bete beharko dute zaratari dagokionez: Genevan 1958ko martxoaren 20an eginiko Akordioaren eranskinen 9, 41 eta 51 arautegiak eta 92/97/EEE Zuzentaraua, ibilgailu berriak homologatzeari eta eguneratzeko ondoko dokumentuei buruzkoa.

2.- Ziklomotoeen kasuan, bi eta hiri gurgpileko motordun ibilgailuen osagaiei eta ezaugarriei buruzko 97/24/EEE Zuzentarauaren 9. kapituluaren ezarritako bete beharko da, 2003/06/17az gero matrikulaturiko ibilgailuetarako, baita 1972ko maiatzaren 25eko 1439/72 Dekretua ere, ibilgailuak zarataren inguruan homologatzeari buruzkoa, egun hori baino lehen matrikulaturiko ibilgailuetarako.

Udalerrian dabilzan ibilgailuen igorpen mailen kontrolari dagokionez, ibilgailua motordun ibilgailuen araubiderako homologatzeko dokumentazioan edota planean adierazitakoak izango dira motozikleta, ziklomotore eta kuadriziklo arinetarako muga onargarriak.

Ibilgailuak horrelako bereizgarririk ez badu, edo arau-hausleak dokumentazioa ez badu ibilgailuan, ihes-ahotik 0.5 m-ko mailari dagozkionak izango dira aplikatu beharreko mugak, eranskinaren arabera neurtuak.

Hurrengo taulako mugak ere aplikatuko dira baldin eta fitxa teknikoan 7,5 metrora ezartzen badira mugak eta ez 0,5 metrora, eta neurketa hodi-ahotik 0,5 metrora egingo da.

o Ziklomotoreek eta motozikletek igorritako gehieneko soinu mailak, geldirik dagoen ibilgailuan.

o Ibilgailuaren kategoria: 2 gurpileko ibilgailuak, sidekar eta kuadriziklo arinik barik

o zilindrada: <80cc, dBA-n adierazitako soinu maila: 87

o zilindrada: 80/175cc, dBA-n adierazitako soinu maila: 98

o zilindrada: >175cc, dBA-n adierazitako soinu maila: 101

3.- Ordenantza honetako eranskinean zehazturikoak izango dira geldirik dagoen ibilgailuaren metodoaren arabera beti egingo diren ebaluazio-entseguak.

IV. TITULUA

Arau-haustek eta zehapenak

20. art. Arau-haustek.

1. Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren III. kapituluaren xedatu denarekin bat etorriz, ondorengo ataletan ezarri diren eta ordenantza honek dakartzan zehaztapenak ez betetzea izango da arau-haustea. Honela sailkatuko dira: arau-hauste oso larriak, larriak eta arinak, pertsonen, haien ondasunen edo ingurumenari eragiten zaien perturbazio edo kalte mailaren arabera, baita pertsona arau-hausteari erruzko edo iruzurrezko jokabidearen arabera ere.

21. art. Arau-hauste oso larriak.

1. Hauexek izango dira arau-hauste larriak:

a) Ordenantza hau bete behar duten obrak, proiektuak edo jarduketak hasia edo burutzea lizentziarik edo baimenik gabe, edo jarduketan baldintzak bete barik.

b) Ingurumenaren baldintzak edo oreka kaltetzen ez duen zarata edo dardarak egitea ingurumenean; ildo horretan, halakotzat hartuko da soinu maila dagokiona baino 12 dB(A) handiagoa izatea ezarritakoaren gainetik dauden hurrengo bi kurba baino gehiagoko dardara igortzea.

c) Ingurumen-eragina ebaluatzeko edo baimenak edo lizentziak izapidetzeko beharrezko datuak ezkutatzea edo faltsutzea.

d) Jarduerak eteteko, ixteko eta uzteko aginduak ez betetzea, baita ezarritako zuzenketa neurriak ez betetzea ere.

e) Udalak ezarritako kautelazko neurriak ez betetzea.

f) Ikuskizun Publikoen eta Jolas-jardueren Legeari loturiko jardueren kasuan, urtebetean hiru arau-hauste egitea.

22. art. Arau-hauste larriak.

1. Hauexek dira arau-hauste **larriak**:

a) Aurreko artikuluko ataletan aipaturikoak, eragindako perturbazioak larritzat hartzeko baldintzak betetzen ez dituenean.

b) Gutxienez 9 dB-n(A) eta gehienez 12 dB-n(A) gaintitzea baimendutako soinu mailak, baita dardaren mailak ere baimendutakoaren gainetik dagoen hurrengo oinarrizko kurbaraino.

c) Ihes-hodi librea, hondaturiko isilgailua, osatu gabeko isilgailua edo desegokia edo homologatu gabeko ihes-hodia duten motordun ibilgailuekin eta ziklomotoreekin ibiltzea.

d) Titularrek jarduerari edo instalazioei buruzko datuak ez ematea, datuak emateari uko egitea edo behar den informazioa ezkutatzea. Halaber, kontrol sistemak, mugagailuak, ertzapenak, etab. manipulatzeko edo aldarazteko.

e)Udalaren ikuskaritza eragozteko, modu aktiboan edo pasiboan.

f) Ikuskizun Publikoen eta Jolas Jardueren Legea bete behar duten jarduerari dagokienez, hiru arau-hauste arin urtebetearan barruan egitea.

23. art. Arau-hauste arinak.

1. Hauexek dira arau-hauste **arinak**:

a) Larriztat edo oso larriztat hartutako arau-haustek, pertsonengan, ondasunetan edo ingurumenean eragin txikia dutela-eta larriztat edo oso larriztat hartzeko inguruabarrak gertatzen ez direnean.

b) Gehienez 6 dB(A)-n gainditzea baimendutako soinu mailak, baita dardaren mailak ere baimendutakoaren gainetik dagoen hurrengo oinarrizko kurbaraino.

c) Zamalanen eta herri bideetako lanen eta eraikuntza lanen jardueri buruzko 10 eta 11. artikuluetan ezarritako ordutegiak ez betetzea.

d) Alarma sistemaren funtzionamendu okerra dela-eta herritarrengan sortutako eragozpenak, eragozpenen arduraduna agertzen ez bada edo harekin harremanetan jartzerik ez badago eta jabeari edo enpresa instalatzaileari edo hornitzaileari egotzi dakizkiokeen ekintzen ondoriozko funtzionamendu okerra dela egiaztatzen bada.

e) 16. artikuluan bildutako 2, 3, 4 eta 5 ataletako debekuak ez betetzea, salbu eta artikuluan berean ezarritako salbuespenak izan ezik.

f) Motordun ibilgailuak aztertzeko ez aurkeztea eta ibilgailuak ateratako zarata kontrolatzeko beharrezko probak egiteari uko egitea.

24. art. Zehapenak.

1. Arau-hauste oso larriei ondoko zehapen hauei egokituko zaizkie:

—1503 - 30.051 euroko isuna.

2. Arau-hauste larriei ondoko zehapen hauei egokituko zaizkie:

—301 - 1.502 euroko isuna.

3. Zehapen hauek ezarriko zaizkie arau-hauste arinei:

—Gehienez 300 euroko isuna.

25. art. Zehapenen mailakatzea.

1. Irizpide hauen arabera mailakatzen dira zehapenak: pertsonen ondasunean edo

ingurumenean duen eragina, gizartean izandako eragozpena, legez kontra lorturiko etekina, arau-hauslearen asmozkotasuna, iruzur eginez jokatzea eta arau-haustean berriz erortzea.

26. art. Zigor-prozedura.

1. Araudi orokorrean ezarritako zigor-prozeduraren arabera izapidetuko dira zigor-prozedurak. Espedientearen edozein unetan, kautelazko neurri egokiak ezarri ahal izango dira, aldarazitako lasaitasuna berriz ezartzea lortzeko.

27. art. Udal jarduketa.

1. Zigor-espedientea egiteko organo eskudunek, edozein unetan, bidezkoa izan litekeen ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko behin-behineko beharrezko neurri egokiak erabaki ditzake zioak emanda, baita arau-haustearen ondorioei eustea ekiditeko edo pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko ere.

2. Hauexek izan daitezke neurri horiek: bermeak jartzea; segurtasuna, higiena edo erosotasuna direla-eta zerbitzuak, jarduerak edo lizentziak aldi batez etetea; pertsonen segurtasunerako edo titularren kargurako establezimendu edo instalazioetarako egokitzat jotzen dituzten behin-behineko neurriak hartzea.

3. Behin-behineko neurri bat hartutakoan, udalaren zerbitzu teknikoaren alde aurretiko txostena beharko da neurria kentzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan adierazitako mailak berehala egokituko zaizkio horren inguruan aplikatu beharreko maila handiagoko xedapenetan ezarritakoari, betiere xedapen horiek baldintza murriztaileagoak edo eskakizun handiagoak ezartzen badituzte eta herritarren bizi-kalitatearen babes handiagoa eta hobekuntza badakarte.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena: Ordenantzan ezarritako zuzenketa neurriei eta baldintzei lotu beharko zaizkie ordenantza hau indarrean sartzean funtzionamenduan diren jarduerak, betiere jarduera aldatu, berritu edo handitzeko asmoa badago, edo titularitate aldaketa gertatzen bada. Erabateko edo zatizko egokitzapena izango da, egin nahi den aldaketaren garrantzia eta lokalen inguruabarrak aintzat hartuta, udalak zioak emanda izango dituen irizpidearen arabera.

Bigarrena: Aurreko xedapenean ezarritakoa aintzat hartu barik, ordenantza hau indarrean sartu baino lehen baimendutako jarduerak badira eta pertsona edo ondasunentzako eragozpenak edo edozein kalte mota daudela egiaztatzen bada, udal agintaritzak ezarritakoa izango da ordenantzari egokitzeko epea. Horretarako arrazoiak emango dira, ekidin beharreko arriskuaren larritasunaren arabera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten dira ordenantza honek dakartzan manuen kontra diren edo haiekin kontraesanean dauden udal xedapen guztiak.

Ordenantzan ezarrita ez dagoenari dagokionez, tokiko araubidearen arau orokorretan xedatu dena bete beharko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek ondorioak izango ditu ordenantzaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun baliodun igaro ondoren.

1. ERANSKINA

ZARATAREN INMISIO MUGAK KANPOKO ZEIN BARNEKO INGURUTAN ETA DARDARARENAK BARNEKO INGURUTAN

NIVELES LÍMITE DE INMISION DE RUIDO EN EL AMBIENTE EXTERIOR E INTERIOR Y DE VIBRACIÓN EN EL AMBIENTE INTERIOR

GUNEAK ZONAS O USOS	KANPOKO GIROA AMBIENTE EXTERIOR		BARRUKO GIROA AMBIENTE INTERIOR			
	SOINU MAILA OROKORRA NIVEL SONORO GLOBAL $L_{eq} / \text{dB(A)}$		SOINU MAILA OROKORRA NIVEL SONORO GLOBAL $L_{eq} / \text{dB(A)}$		ERREFERENTZIA KURBA (ISO 2631) K BALIOA	
	EGUNA/DÍ A	GAUA/NOC HE	EGUNA/DÍA	GAUA/NOC HE	EGUNA/DÍ A	GAUA/NOCH E
SENTIKORTASUN BEREZIKO GUNEAK SENSIBILIDAD ESPECIAL BIZITEGIAK/RESIDENCIAL	50	40	30	25	1	1
- Logelak eta egongelak/Dormitorios y salas de estar			40	30		
- Beste barruko zonalde batzuk/Otras zonas interiores			45	40		
- Erabilera orokorreko zonaldeak/Zonas de uso común						
BULEGO-GUNEAK/OFICINAS	65	50	45	40	4	4
MERKATARITZA- GUNEAK/COMERCIAL	65	55	50	50	4	4
INDUSTRIA-GUNEAK/INDUSTRIAL	70	65 55(D.E.)	60	60	8	8

Mugako mailak aplikatuko dira zonalde edo erabilera bereko lokaletan baldin eta inmisio baldintzarik txarrenak direla irizten bazaio.

Mugako maila horiek ez dira aplikatuko ibilgailuen trafikoa, trena, eraikuntza-lanak eta herri bideko lanak badira zarata-guneak; horien arauak titulu espezifikotetan ezarriko dira.

Zarata etenerako edo eraginen zaratarako, L_{max} maila deskribatzailea erabiliko da, eta L_{eq} mailarako ezarritakoak 5 dB(A)rekin handituta lortuko dira mugako mailak.

Eguna deritzo 8:00etatik 22:00etara doan aldiari, salbu eta sentikortasun bereziko zonaldeetan: 9:00etatik 21:00etara. Gainerako orduak gaueko aldiari dagozkio.

Zaurigarritasun bereziko aldea: Ekipamendua dela-eta soinu giro berezia behar duen zonaldea da. Udalak erabakiko du udalerriko zein zonaldek duen kalifikazio hori eta, edozelan ere, halakotzat hartuko dira osasun edota laguntzako erabilera nagusiko eraikinak eta gune libreen erabilera nagusiko zonaldeak.

Egoitza aldea: Egoitzako, ostalaritzako edota kanpamendu turistikoko erabilera nagusiko zonaldea da. Egoitzako erabilerako lokaletan, eraikineko alde komunak izango dira hala nola eskailera-kutzak, atariak, atondoak edo sarrerako korridoreak, gizarte zerbitzuko lokalak eta barruko patioak.

Bulego aldea: erabilera nagusia bulegokoa edota bestelako hainbat erabilera tertziariotakoa deneko zonaldea da.

Merkataritza aldea: erabilera nagusia merkataritzakoa edota jolasekoa deneko zonaldea da.

Industri aldea: industri (edozein kategoriatakoa), landa eta itsasbazterra ustiatzeko erabilera edota komunikazio edo zerbitzuko azpiegiturako erabilera nagusia deneko zonaldea da.

Gizarte ekipamenduaren erabilera nagusi deneko zonaldeak helburu horiekin bat datozen aurreko erabilerekin berdinetako dira.

Udalak zehazturiko zona mota batetik besterako trantsizioko zonaldeetarako egokien iritzitako mugak eskatuko ditu.

Kasu berezietan, udalaren irizpide arrazoituaren arabera, eranskin honetan zehazturikoak ez bezalako mugako mailak eskatu ahal izango dira.

Baldin eta zonalde jakin batean egiaztatzen bada lorturiko gutxieneko giroko soinu maila ezarritako mugatik gorakoa dela, mugako inmisio mailatzat hartuko da giroko soinuaren maila une horretan eta alde horretan. Hala ere, edozein inguruabar dela-eta giroko soinu maila aldatuko balitz, egoera berri horri emango litzaioke erantzuna, garai batean ezarritako betekizunak aldatuz.

2. ERANSKINA

NEURTZEKO PROZEDURAK

1. Neurtzeko ekipoak.

UNE-EN 60651:1996 eta UNE-EN 60651/A1:1997 arauetan (sonometroei buruzkoak) zehazturiko 0 edo 1 klaseko zehaztaper baldintzak bete beharko dituzte neurketetan erabilitako ekipoek, eta UNE-EN 60804:1996 eta UNE-EN 60804/A2:1997 arauetan ezarritakoak (sonometro integratzaile-promediadorei buruzkoak).

Neurketak baino lehen eta ondoren egiaztatuko dira berehala neurketa-kateak, 1. klaseko soinu-kalibratzaile baten edo hobeago baten bidez, edo UNE 20942:1994 arauan zehazturiko baldintzen arabera.

UNE 21328-4:1975 eta UNE-EN 61260:1997 arauetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte erabilitako iragazkiek.

Erreberberazio denbora neurtzeko erabilitako ekipoek UNE-EN 20354:1994 arauan zehazturiko baldintzak bete beharko dituzte.

Aireko zarataren isolamendua neurtzeko soinu-iturri bat erabiltzen bada, UNE-EN ISO 140-4:1999 arauan zehazturiko baldintzak bete beharko ditu soinu-iturriak.

UNE-EN ISO 140-7:1999 arauaren zehaztaperak bete beharko ditu inpaktuen makina normalizatuak.

Dardaren neurketan, neurketa-katea intereseko maiztasunen tartearekin bateragarria dela ziurtatu beharko da (1-80 Hz). Neurketa ekipoak UNE-ENV 28041:1994 arauan zehazturiko baldintzak bete beharko ditu.

Neurketen kalitatea ziurtatzeko, 1998ko abenduaren 16ko Aginduan ezarritakoa bete behar dute sonometroek, sonometro integratzaileek eta batez bestekoak ateratzen dituzten sonometroek eta soinu-kalibratzaileek, eredia onesteari, hasierako egiaztapenari, konponketaren edo aldaketaren ondoriozko egiaztapenari eta aldizkako egiaztapenari dagokienez. Neurketako gainerako ekipoek mantentze- eta kalibratze-plan batean egon beharko dute, eta urtero egiaztatu beharko dira.

Atal honetan aipaturiko UNE arau guztiak berehala aldatuko dira une jakin batean, eta horien ordezkotzat beste batzuk ezarriko dira.

2. Neurturiko mailen zuzenketa.

Zenbait kasutan, beharrezkoa izango da giroko soinu edo dardaren zuzenketa jakin batzuk batez besteko mailari aplikatzea, edo tonu edota kolpekatu osagaiei zuzenketa.

Halakoetan, emaitza hau izango da ondoriozko azken maila: batez besteko mailari zuzenketa aplikatzearen emaitza, eta zuzenketa horiek, edozelan ere, metagarriak dira.

2.1. Giroko zarataren edo dardararen zuzenketa.

Giroko soinuaren edota bibrazioaren neurketak egin behar dira, inmisio mailak neurtu behar diren tokietan, hain zuzen inmisioak jardueraren edo instalazioaren ondorioz sortutako mailetan eraginik ez duela ziurtatzeko.

Soinu-fokua martxan ez dagoenen giroan dagoen soinu edo dardaren mailari deritzo giroko soinua edo bibrazioa.

Giroko soinua neurtzeko, L_{eq} mailan finkatu beharko da neurketa aldian.

Soinu-fokua martxan egonda edo martxan egon barik dagoen soinu maila orokorren diferentziak 10 dB(A)tik gorakoa izan behar du, giroko soinuak neurketan eraginik ez duela ulertzeko. Diferentzia hori 3 dB(A)tik beherakoa bada, ez da baliozko neurketatzat hartuko.

Diferentzia 10 dB(A) baino txikiagoa edo berdina bada, neurturiko mailen gaineko zuzenketa hau egingo da:

$$L = 10 \lg (10L_{sb}/10 - 10L_b/10)$$

non,

— L soinu-fokuak transmitituriko maila zuzendua baita.

— L_{sb} martxan den fokuekin neurturiko maila konbinatua baita.

— L_b giroko soinu maila baita fokua geldirik dagoela.

Mailen diferentzia 10 dB(A)-tik gorakoa bada, ez da zuzenketarik egin beharrik izango, eta giroko soinuak neurketan eraginik ez duela ulertzen da.

Maiztasunetan azterketak egiten direnean, dB-tan egiten dira zuzenketak erabilitako maiztasun-espektroa osatzen duen banda bakoitzerako, betiere neurketaren xedearen arabera aplikatu beharreko UNE edo ISO arauan ezarritakoarekin bat etorriz.

2.2. Tonu-osagaiko zuzenketak.

Prozedura honen bidez ebaluatuko da azterturiko soinu-osagairik dagoen:

Haztapan linealeko eta zortziko baten hereneko bereizmeneko azterketa egingo da 100 eta 5000 Hz bitarteko maiztasunetarako eta, beharrezkoa izango balitz, 20 eta 8000 Hz bitartekoetarako. Alboko bandetan dagoena baino presio akustiko handiagoko bandak finkatuko dira.

Kontsideraturiko banda mailaren eta alboko bi banden mailaren arteko diferentziak kalkulatu dira, eta ondoren, diferentzia horien batez besteko aritmetikoa kalkulatu da (D_m).

Gehieneko zehapena duen banda kontsideratuko da. DB(A)n neurturiko batez besteko maila orokorrari aplikatuko zaio zehapena:

FREKUENTZIA TARTEAK RANGO DE FRECUENCIAS	TONU-OSAGAIKO ZUZENKETA CORRECCIÓN POR COMPONENTES TONALES		
	D_m 5 dB	D_m 8 dB	D_m 15 dB
20 – 125 Hz	1 dB(A)	3 dB(A)	5 dB(A)
160 – 400 Hz	3 dB(A)	5 dB(A)	5 dB(A)
500 – 8000 Hz	5 dB(A)	5 dB(A)	5 dB(A)

D_m balioa 5 dB-koa baino txikiagoa bada, ez da tonu-osagaitzat hartuko eta beraz, ez da zehapenik izango.

2.3. Tonu-osagaiko zuzenketa.

Kolpekako osagaiak izango ditu ebaluatzen den zaratak maila handiko solnu presio laburrak entzuten direnean.

Kolpekako osagaiak badirela ebaluatzeko, ondoko prozedura hau erabiliko da:

Etengabeko Leq maila baliokidea neurtuko da dB(A)tan, eta behaketa aldi berean, sonometroaren «Bulkada» ezaugarriaren bidez neurtuko da solnu-presioaren maila.

Bi neurketen arteko diferentzia 3 dB(A)-koa baino txikiagoa bada, ez dago kolpekako osagairik; 3 eta 6 dB(A) bitarteko diferentzia bada, kolpekako osagaiak argiak badira (3 dB(A)ko zehapena) eta diferentzia 6 dB(A)tik gorakoa bada, indartsuak dira kolpekako osagaiak.

3.Neurri motak.

3.1.Soinu maila globalak zehaztea.

3.1.1.Barruko giroko soinu maila orokorrak zein diren zehaztea.

ISO 1996 arauetan edo horien ordezkotako edozein arautan adierazitakoa kontuan hartuta egingo dira barne giroko soinu mailen neurketak.

Aurretiazko ikuskapen kualitatibo baten bidez, eragozpenaren fokua identifikatuko dira. Gehieneko igorpen-puntua aurkitutakoan, posizio horretan egingo dira neurketak.

Zarataren izaera zehaztuko da: etengabekoa, etenkakoa, kolpekakoa, tonu puruak izatea, etab.

Funtzionamendu modu desberdinak identifikatuko dira, lokal igorlean edo jardueraren edo instalazioaren inguruan izandako mailak neurtuz. Informazioa erreferentzia izango da, neurketak egin diren baldintzak ezagutzeko eta neurketak konparatzeko eta berriz egiteko aukeretarako oinarria.

Ukituen dagoen zonaldean, gunean edo lokalean neurtuko dira mailak hartzailean, eta ateak eta leihoak itxita egongo dira, salbu eta soinua argi eta garbi kanpotik badator (adibidez, patioetarako ateratze-instalazioetan); hala denean, leiho irekiekin egin ahal izango da neurketa.

Gutxienez ondoz ondoko bost neurketa egingo dira ausazko posizioetan, haien artean gutxienez 0,7 m-ko tartea dagoela. 1,2 eta 1,5 m artean egingo dira neurketak lurraren gainetik, eta posiblea denean, hormetatik edo beste azalera islatzaile batzuetatik gutxienez metro bateko distantziara eta leihoetatik 1,5 m-ra baino distantzia handiagora edo, nolana ere, areto hartzailearen erdian.

Soinu-fokuaren funtzionamenduaren ezaugarrien arabera aukeratuko da neurketa egiteko aldia, eta beti neurtuko da eboluzioaren maila nagusia lortzeko. Edozelan ere, 10 segundokoa izango da gutxieneko neurketa aldia.

A maiztasuneko haztapena eta neurketa ekipoko aldi baterako FAST (bizkorra) haztapena erabiliz egingo dira neurketak. Leq eta Lmax mailak zehaztu beharko dira neurketako aldian.

Neurketaren Leq maila nagusia izango da eginiko neurketen energiaren batez bestekoa etenik gabeko soinua bada, eta Leq mailarik handiena soinu aldakorra denean.

Neurketaren Lmax maila nagusia izango da eginiko neurketen batez besteko aritmetikoa.

3.1.2. Kanpoko giroko soinu maila orokorrak zein diren zehaztea

ISO 1996 arauetan edo horren ordezkoko beste edozein arautan adierazitakoa kontuan izanda egingo dira kanpoko giroko soinu mailen neurketak.

Kanpoko neurketak 3,5 m-ra egingo dira gutxienez eraikinetatik, hormetatik edo lurra ez den beste edozein egitura islatzailetatik, eta 1,2 eta 1,5 m artean lurraren gainetik, mikrofonoa zarata-gunera bideratuta dagoela.

Jarduerek edo instalazioek fatxadatik kanpora igorritako zarata neurtzen denean, lokaleko fatxadaren planotik 2 metrora jarriko da mikrofonoa.

Jarduerek edo instalazioek kanpora irekieretatik (berogailu, aireztapen eta aire egokituaren instalazioak, tximiniak, konpresoreak, motoreak, generadoreak, etab.) igorritako soinua neurtzeko, mikrofonoa irekieratik metro batera jarriko da gutxi gorabehera.

Eraikuntzei dagokienez, aire zabalean egingo dira neurketak, hots, erreflexioen eragina izan beharko da aintzat, salbu eta lurrak eragindakoa. Intereseko tokietan egingo dira neurketak, fatxadatik metro batera baino distantzia handiagora, edo zabalik dagoen leiho batetik eta 1,2 eta 1,5 m-ko distantzian intereseko lurraren gainetik.

Neurketak fatxadatik metro batetik baino harago egiten badira, 3 dB kenduko zaizkio batez besteko balioari, eraikinaren erreflexioak kontuan hartzeko.

Perturbazioa dakarten soinu-seinaleen eraginik ez da izango ahal dela, adibidez: haizearen soinua edo airearen fluxuaren soinua neurketako mikrofonoan, interferentzia elektrikoetako soinua edo kanpoko iturrietako beste edozein soinu.

Eguraldiaren balizko eragina hartuko da kontuan (haizearen noranzkoa eta abiadura, euria, tenperatura, etab.). Gomendagarria da egonkortasunik handieneko neurketak egitea (soinu-iturritik hartzailearenganako aldeko haize txikia edo gauean gertatu ohi den bihurteta termikoko egoeran). Edozelan ere, neurketetan izandako eguraldia eta neurketetan izandako balizko eragina izango dira kontuan.

Ez da beharrezkoa eguraldia kontuan hartzea igorlearen eta hartzailearen artean 25 m-tik beherako distantzia dagoenean, iturriaren garaiera 2 m-tik beherakoa denean eta hartzailea 1,5 m-tik beherako altuerara dagoenean. Iturriaren eta mikrofonoaren altuera handiagoetarako, ez da beharrezkoa eguraldia kontrolatzea haien arteko distantzia 50 m-tik beherakoa denean.

Fokuaren ohiko funtzionamendu egoeran egin behar dira neurketak, eta maila handiagoak dakartzaten aldiak aukeratuko dira eta, beraz, eragozpen handiena dakartenak.

Mikrofonoaren kokapen desberdinak erabiliko dira baldin eta neurketa bakarra esanguratsua ez dela irizten bazaio. Nolanahi ere, eginiko neurketen kopuruak eta posizioa agerraraziko dira neurketei buruzko txostenean.

Zarata-fokuaren funtzionamenduaren ezaugarrien arabera aukeratuko da kasu bakoitzean neurketa egiteko aldia, eta eboluzioaren maila nagusia lortzeko beharrezko denbora neurtuko da beti. Edozelan ere, ordenantza honetan zehazturiko mailak lortzeko garrantzitsuak diren zarata-fokuaren funtzionamendu tartekak estali behar dituzte neurketek.

3.1.3. Ziklomotoreek eta motozikletek eginiko zarata zein den zehaztea.

Geldirik dagoen motozikletaren edo ziklomotorearen metodoa jarraituko da neurketa egiteko. Ihes-gailuaren (isila) irteeratik hurbil neurtuko da presio akustikoaren maila, ondoren adieraziko diren xedapenekin bat etorritz.

Entsegu-eremuan ez da perturbazio akustiko handirik izan behar: harresiak, landareak, azalera laua eta hormigoiz, asfaltuz edo beste edozein zoladura gogorrekin egon behar da estalita. Laukizuzenaren itxura izango du, eta aldeak gutxienez 3 m-ra egongo dira motozikletaren edo ziklomotorearen muturreko ertzetatik, gidoina kontuan izan barik.

Laukizuzen horren barruan ez da egongo eragozpen handirik edota behatzailea eta gidaria ez den beste inor. Zintarria badago, laukizuzen horren barruan jarriko da motozikleta edo ziklomotorea, halako moldez non neurketako mikrofonoa laukizuzen horretatik metro batera egongo baita gutxienez.

Giroko soinu maila neurtu behar da. Neurketa horiek, gutxienez, neurtu beharreko soinu maila baino 10 dB(A)koak baino txikiagoak izan behar dute. Haizearen zaratarik ez izateko

neurketan, haizearen kontrako babes-pantaila jarri beharko da.

Ihes-bidearen parean jarriko da mikrofonoa, eta inola ere ez pistaren azaleraren gainetik 0,2 m-ra baino distantzia laburragora. Mikrofonoaren mintza gasen irteera-ahotik bideratuko da, aho horretatik 0,5 metrora. Pistaren paraleloan egon behar du mikrofonoak, eta $45^\circ \pm 10^\circ$ -ko angelu bat osatu behar du ihes-gasen irteeraren norabideko plan bertikalean. Hainbat ihes-irteera badaude eta horien erdiguneen artean 0,3 m-koa baino tarte handiagoa ez badago, barruren edo altuen dagoen irteerara bideratuko da mikrofonoa. Erdiguneen artean 0,3 m-tik gorako distantzia badago, neurketa desberdinak egingo dira irteera bakoitzean, eta emaitzarik altuena baizik ez da kontuan hartuko.

Neurketa egin baino lehen, funtzionamenduko ohiko tenperaturan jarriko da motorea. Neurketa egitean, itopuntuko posizioan egon beharko du martxa-kutxak. Transmisioa desakoplazetik ez badago, gurpil eragileari askatasunez biratzea utzi behar zaio, adibidez, motozikleta edo ziklomotorea euskarri baten gainean jarrita.

Motorearen erregimena egonkortu egingo da azelerazio ibilbide erdian pixka bat azeleratu ondoren. Erregimen egonkortua lortzean, azeleradorea bizkor eramango da erralenti posiziora. Motorea erregimen egonkortuan dagoen funtzionamenduko aldian eta dezeleratzea aldi osoan neurtuko da soinu maila.

A maiztasuneko haztapena eta neurketa ekipoko aldi baterako FAST (bizkorra) haztapena erabiliz egingo dira neurketak. Lmax maila zehaztu beharko da neurketako aldian.

Gutxienez hiru neurri hartuko dira mikrofonoa jartzeko identifikaturiko puntu bakoitzean. Soilik hartuko dira aintzat elkarren artean 2 dB-tik (A) gorako diferentzia ez dutenak.

Eginiko hiru neurketen batez besteko aritmetikoaren neurria izango da ereduizko maila.